



Euskal Herriko kondairetan oinarritutako antzerkia egingo dute ataudarrek. GARI GARAIALDE / ARGIAZKI PRESS

Jentilak, kristauen munduan

San Martin jaiei hasiera emateko Jentilen Etorrera antzeztuko dute ataudarrek, urtero lege

ESTITXU ZABALA
Donostia

Euskal mitologiako gizakiak dira jentilak, Euskal Herria kristautu aurreko euskaldun fedegabeak. Urtero ongietorria egiten diete menditik jaisten diren pertsonaia horiei Ataunen (Gipuzkoa), eta ondoren, euskal kondairetan oinarritutako antzerki bat egiten dute. Aurtan, San Martin jaietako lehen egunean egingo dute Jentilen Etorrera ataudarrek, «lehen jaien amaiera izaten zen, eta jaialdian parte hartu behar genuenok beti buruan kezka horrekin ibiltzen ginen. Iaz, jaien lehen eguner aurreratu genuen, eta dena oso ondo ateratu zen. Aurtan ere hala izatea espero dugu», dio harro Jon Aizpuruak antzerkiko gidoilariak. Aurtan antzeztuko duten istorioan aginte aurrean fikziozko alkateak, apaizak, medikuak, eskribauak, San Martin Txikik eta herritarrek. Ondoren, ordubete inguru irauten duen antzerkia egiten dute. Antzezpenean mitologian oinarritutako bi pasarte antzezten dira. Gainera, istorioa herriaren gaurkotatunarekin lotzen saiatzen



Menditik herrira datozen jentilei ongietorria egingo diete. GARI GARAIALDE / ARGIAZKI PRESS

go», dio misterioa argitu gabe Aizpuruak.

Urteroko ikuskizunak bi atal izaten ditu, lehenengo, kale ibilaldia egiten dute. Hala, eguzkia ezkatutu orduko, larruzko jantziekin eta suziak eskuetan hartuta menditik jaisten dira jentilak sor-ginekin batera. Hala, herrian, jentilei ongietorria egiten diete udal-txe aurrean fikziozko alkateak, apaizak, medikuak, eskribauak, San Martin Txikik eta herritarrek. Ondoren, ordubete inguru irauten duen antzerkia egiten dute. Antzezpenean mitologian oinarritutako bi pasarte antzezten dira. Gainera, istorioa herriaren gaurkotatunarekin lotzen saiatzen

dira, «Urtean herrian zerbait berezia gertatu bada, kondairetan islatzea gustatzen zaigu», argitu du Aizpuruak. Iaz, eliza berri zutela aprobetxatuz, jentilek kristauei eliza egiten lagundu zieteneko istorioa gogorazti zuten, «aurten, Lareoko urtegi- zebra muskuiluak azaldu direla eta, ura edaterik egongo ez zela esaten zuten, beraz, pertsonaiek

«Urtean herrian zerbait berezia gertatu bada, kondairetan islatzea gustatzen zaigu»

JON AIZPURA
ANTZERKIKO GIDAILARIA

ura edateko arazoak izango dituzte».

Aurtengo pertsonaia nagusieta-ko bat Aztia izango da, berak argi- tuko baitu lapurra zein izan den. Bestetik, betiko pertsonaia finko- ak egongo dira, urte hauetan guz- tietan garrantzi handia lortu dute- nak: herriko apaiza, Mari Mundu- ko (sorginen burua), San Martin Txiki (sekretu guztien jabe dena), Torto (begibakarra), eta Mikelats. Pertsonaia horien rolak urtero pertsona berak hartu izan dituzte, «errelebo eske ari dira, baina hain- beste urtetan aritu direnez, ant- zezleak beraiek bihurtu dira per- tsonaia. Ez ditugu beste batzuk imajinatzen paper horiek bete- tzen! Hala ere, noizbait egin behar- ko dugu aldaketa, eta pertsonaia berriak ere sartu beharko ditugu».

LAN HANDIKO IKUSKIZUNA. Gabonak pasa eta urte berriarekin batera jartzen dira lanean ataudarrak zer egin dezaketen pentsatzen. «Nik kondairak proposatzen ditut, eta hortik hasten gara poliki-poli- ki gauzak egiten», azaldu du Aiz- puruak. Elkarlanean egiten dute herritarrek, hala ere, ia urte guzti- ko lana izaten dute. «Bereziki dauzkagun bitartekoan arabera erabakitzen dugu zer egin dezake- gun. Askotan ipuina polita izan arren, pertsonaia guztiak betetze- ko jendea falta daiteke, eszena- rtzeko zailtasunak eska ditzake,

edota antzeztuko luzeegia izan dai- teke».

Ikuskizun guztia euskaraz izan- ten da, euskara batua eta Ataungo euskara tartekatzen dituzte. Pa- sarte gehienetan Ataungo euska- ra erabiltzen dute, hala, galtze- ar dauden hitz eta esaera ugari era- biltzen dituzte. Gainera, proposa- menak eta ekarpenak jende guz- tiak egiten ditu, bereziki behin en- tseguak hasten direnean. «Ataungo euskaraz idazten ditut gidoiak, eta ondoren, entseguetan antzezelek euren ekarpenak egi- ten dituzte. Euren etxean beste era batean esaten bada eta politagoa iruditzen bazaigu, ordezkatu egi- ten dugu», azaldu du Aizpuruak. Herriko abesbatzak eta dantza tal- dekoek ere parte hartzen dute ikuskizunean. Batez beste, oroko- rrean, ikuskizunean, antzerkian, desfilean eta antolaketa lanetan 100 bat herritar aritzen dira urtero jo eta ke.

MEÑDE LAURDENETIK GORA. 1981ean hasi ziren Ataunen Jentilen Eto- rrera ospatzen, «garai hartan ekai- nean ospatzen ziren herriko jaiak. Hala, gaurdiz egiten zen ikuski- zuna», azaldu du Aizpuruak. Au- rrerago, 1992an, beste urrats bat egin zutela dio Aizpuruak, «Batez ere Barandiaranek jasoak zituen ipuin eta kondairak antzerki bihurtzen hasi ginen. Antzerkia beti egin da, baina pertsonaia des- berdinekin orduan hasi ginen».

Zer: Jentilen Etorrera

Non: Ataunen (Gipuzkoa)

Noiz: Larunbatean, 18:30etik aurrera.